



RUIZ LARREA, Nekane

Zuzenbide Zibileko Irakasle laguna
Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultatea.
Manuel de Lardizabal, 2
20009 - Donostia

BIBLID [1137-1951 (1997), 1; 28-41]

Delitutik eratorritako erantzukizun zibila

(Civil liability derived from crime)

Erantzukizun zibila Zuzenbidearen arlo guztietan ematen den fenomeno da dugu eta, eremu bakoitzean, bere arauketa berdina ez bada ere, erantzukizun zibil bera eta bakarra da guztietan. Ideia hau abiapuntu delarik, lan honetan delitutik eratorritako erantzukizun zibilaren azterketa egiten da; bertan, erantzukizun zibilari buruzko araudiaren bikoiztasuna (ikuspegi zibila eta penala) eta honek eragiten dituen ondorio juridiko kontrajarriak aipatuko ditugu, erantzule zibilaren figura....

Za responsabilidad civil es un fenómeno que surge en todas las ramas del derecho y aunque su regulación es distinta en cada ámbito jurídico, la responsabilidad civil en sí misma es única. Partiendo de esta idea, el presente trabajo analiza la responsabilidad civil derivada de delito: trataremos de la dualidad de normativas (civil y penal) sobre responsabilidad civil y de las consecuencias contradictorias que ello comporta, de la figura del responsable civil...

Za responsabilité civile est un phénomène qui apparaît dans toutes les branches du droit et quoique sa réglementation soit différente dans chacun des cadres juridiques, la responsabilité civile est unique en elle-même. En partant de cette idée, ce travail analyse la responsabilité civile dérivée d'un délit: nous traiterons la dualité des normes (civiles et pénales) sur la responsabilité civile et les conséquences contradictoires que cela comporte, le rôle du responsable civil.

1. **Sarrera:** 1.1. Egintza ez-zilegi zibila eta penala: berdintasunak eta berezitasunak; 1.2. Araudiaren bikoiztasuna; 1.3. Zehapen zibilaren eta penalaren arteko ezberdintasunak; 1.4. Sententzia penalaren eragina ebazpen zibilarekiko; 1.5. Erantzukizun zibilaren aseguruak kaltetuaren babes instrumentu. 2. **Erantzukizun zibilaren araudi zehatza kode penallean:** 2.1. Erantzukizun zibilaren edukia; 2.2. Erantzule aniztasuna. 3. **Erantzule zibilaren ordainezintasuna: kaudimengabeziaren arazoa.** 4. **Erantzukizun zibilaren exekuzioa.**¹

1. Sarrera

1.1. Egintza ez-zilegi zibila eta penala: berdintasunak eta berezitasunak

Lehenengo komenigarria da erantzukizun terminoaren esanahia zehaztea: erantzukizuna norberaren edo beste baten (beste hau norberaren ardurapean dagoen pertsona izan daiteke, adibidez adin-txikiko bat) ekintzetatik edo portaeretatik eratorzen den egitatearekiko sortzen den lotura edo obligazioa izango da, legez edo hitzarmen baten bitartez ezarriko dena².

Bi eratakioa izan daiteke: zibila, egindako kalte bat ekonomikoki³ ordaindu beharra suposatzen duena eta penala (edo kriminala). Azken honek erantzukizunaren bikoizpena eragiten du, zeren, alde batetik, sortutako galera ekonomikoa ordaindu beharko baita, alegia, erantzukizun zibila emango da; eta bestetik, gizarteari egindako erasoak ordaintzeko zehapen edo zigor bat ezarriko baita.

Kode Penalaren 116. artikulua honela dio: "delitu edo hoben baten erantzule kriminala dena

arlu zibilean ere hala izango da egitate horretatik kalte-galerak eratorri badira". Dena dela, errealitatean behintzat, ezin daiteke esan delitua ondorio zibilaren sortzailea denik; hobe da ulertzea egitate bera dela ordena honetan ere eraginak sortarazten dituen⁴. "Edozein gizarte zibilizatutan zehapen bat aplikatzea merezi duten jokaera ez-zilegiak aurkitzen ditugu; beste batzuk, ordea, biktimari eragindako kalte ordaintzeko obligazioa bakarrik sortarazten dute"⁵. Zehapen penala merezi duten jokaerak gizarteko balore garrantzitsuenak erasotzen dituztenak izango dira: bizitza, ohorea, pertsonen segurtasun fisikoa, ordena politikoaren egonkortasuna ... Arlu zibilean ez-zilegiak diren portaerak "simpleki kaltegarri" bezala definituko ditugu, besterik gabe interes partikular bat urratzen dutelako.

Bestalde, zehapen penalek eta zibilek xede edo helburu ezberdinak jarraitzen dituzte, lehenak egitate kaltegarrien egilea zigortu edo zehatu nahiko du⁶, erantzukizun zibilak, berriz, xede konpontzaileari edo osagarriari erantzuten dio. Azken erakunde honen bitartez urratutako ondasuna atontzea lortu nahi da, eta horregatik posible da ordena zibilean adin-txikiko bat, ezgai bat, pertsona juridiko bat edo errugabea den sujeta bat ere zigortzea. Helburu nagusia kaltetua indemnitatzea denez, bigarren maila batean uzten da erantzulea zehatzea. Autore famatu batek dioen bezala "normalean kalte-ordainaren diru-kopuruak zigorra ezartzeak baino hobeto asetzen du (kaltetua); berau kasuaren berezitasunen arabera ezarri daiteke eta gainera irainorde formal bat izatera mugatu daiteke herrialde anglosajoiaren gertatzen denaren antzera non penike bateko kalte-ordainak ere ezartzen baitira, eta batez ere, arazoa orden penalera pasatzeak ekartzen dituen ondorio larriak ekiditen ditu"⁷.

-
1. Halaber, egilea, EHUk finantzaturiko "Delitutik eratorritako erantzukizun zibilari buruzko ikerkuntza "Proiektuko partaide da. Artikulu hau Donostiako Udaletxeko KARLOS SANTAMARIA II. Ikerkuntza Sarian akzesita irabazi zuen lanaren laburpena da.
 2. Irakurri ANTTON IDIAKEZ autoreak, "Erantzukizuna", Zuzenbidea/1 Hiztegia, Donostia, 1987, 103. orrian ematen duen definizioa. Ideia hau sakonduz, "zerbaitengatik edo norbaitengatik erantzun beharra izateak esan nahi du, norberaren nahiz besteren portaeretatik sortutako kalteak eta galerak ordaindu beharra dagoelako".
 3. Erantzukizun zibilak beti diru-ordain bat galdatzen du, zeina eragindako kaltearen tamainakoa izango baita, baina ez du inoiz beste era bateko zigorrak eragingo: ondorioz, kalteegilea kaudimengabea izango balitz bere egoera ekonomikoa hobetu arte itxaron beharko da, ezin baita espexeratzeko zigorrak ezarri lehenengo zehapenaren ordez.
 4. Auzitegi Gorenaren, 1. Salaren sententziak, 1988ko urriak 18koak, dioenez "urratze penala (delitua edo hobena) suposatzen duten egitateak eta beraz destain penala merezi dutenak Kode zibilaren 1089 eta 1092. artikuluek aipatzen duten obligazio zibilaren iturri izan daitezke (...) *ex delicto* obligazioak, zeinak hertsiki ez baitira delitutik jaiotzen, osatzen dituzten egitateetatik baizik; eta gauzaren itzulketa nahiz kaltearen ordaina eta egitate zigorgarriak sortutako galeren indemnitazioa eragiten dituztelako". Zentzu berdinean 1992/XII/30 sententzia. MONTES PENADES, V.L., ("Comentarios al Título V del Código penal", *Comentarios al Código penal de 1995*, ko orr. Vives Anton, I, Valencia, 1996, 572. orria) autoreak ere hori dio: erantzukizun zibila delitutik eratorriko balitz eta egitate kalte-sortzailea honela definituko ez balitz "ez litzateke konpondu beharrik sortuko".
 5. ANGEL YAGÜEZ, R. de, *Tratado de responsabilidad civil*, Madrid, 1993, 49. orria.
 6. Zehapen penalaren zigortze xedea egungo doktrinak zalantzan jarri du, autore berrien iritziz Zuzenbide Penalak delitugilearen bergizarteratzea izan behar baitu helburutzat eta ez hura zigortzea.
 7. LOPEZ JACOISTE, J.J., *Transformaciones y paradojas de la responsabilidad extracontractual*, Madrid, 1994, 22. orria.

Autore gehienen iritziz⁸ delitutik eratorritako erantzukizun zibila eta urratze zibilaren ondorioz sortutako erantzukizun orokorra berdinak dira, bietan oinarria berdina baita, alegia, kalte⁹ baten aurrean gaude pertsona zehatz bati esleitu daitekeena¹⁰. Horretaz gain, egitatezko supostu honek arau penal batean aurrikusitakoa bete dezake eta, orduan, erantzukizun kriminala ere sortuko da¹¹. Gerta daiteke, beraz, egitate batek bi erantzukizun mota ezberdin hauek sortaraztea, zibila eta penala, baina azken hau Kode penaleko 19 eta 20 artikuluan jasotako salbuespen zio batengatik desagertuko balitz ere, horrek ez luke erantzukizun zibilaren desagertzea bultzatuko.

Kode Penalak delituaren ondorio zibilak era orokorrean arautzen ditu 109-122 artikuluetan¹². Araudi hau, dakigun bezala, 1996ko maiatzean indarrean sartu den Kode Penalak berri egin du, baina aztertzen ari garen gaiarekiko, funtsean behintzat, ez du aldaketa handirik suposatu. Hurrengo orrietan araudi hau aztertzen eta iradokitzen saiatuko gara.

1.2. Araudiaren Bikoiztasuna

Gaur egun, erantzukizun zibilari buruzko arauak bi leku ezberdinetan sakabanaturik azaltzen zaizkigu: Kode Penalean (109-126 artikulua) eta Kode Zibilean. Sakabanaketa honen zergatia gertaera historikoetan oinarrituta dago: 1822.urtean lehenengo Kode Penala argitaratu zen, erantzukizun zibila orokorki aztertuko zuen Kode Zibila baino lehenago. Hori dela eta, legegileak delituetatik eratoritzen ziren ondorio zibilak arautzeko, Kode Penalean gai honi buruzko xedapen batzuk gehitu zituen. Orduan, Kode Penalek, beti, erantzukizun zibilari buruzko erregelak jaso izan dituzte, nahiz eta Kode Zibilaren argitaratzearekin artikulua penal horien

beharrak ez izan; logikoena Kode Penalak zuzenean Kode Zibilera igortzea litzatekeelarik.

Praktikan, berriz, alderantzizkoa gertatu da, 1889ko Kode Zibilak bere 1092.artikuluan igorpen espresu bat arautu baitu: bertan esaten zaigunez obligazio zibilak delitutik edo hobenetik jaiotakoak direnean Kode Penalera jo beharko dugu; Kode Zibilak kalte horien inguruko gorabeherak soilik urratze penal baten emaitza ez direnean arautuko dituelarik.

“Errakuntza” historiko honek beraz, erantzukizun zibilari buruzko araudiaren bikoizketa eragin du: “zentsugabea den 1092. artikulua horrek aipatzen duen erantzukizun zibila 1093. artikuluan azaltzen den ber-bera da”¹³. Autore batzuren ustetan “inertziak” eragin du araudiaren bikoizketa; beste batzuentzat politika kriminaleko arazoiek hala galdatzen dutelako. Azken hauen esanetan bi erantzukizun motak radikalki banatzeak prozesua moteltzea suposatuko luke eta ondorioz, eraginkortasuna galtzea; aldi berean, helburu garrantzitsu bat, biktimari eragindako kalte eta galerak konpontzea, oztopatuko luke¹⁴.

Berebat, PANTALEON autoreak dio prozedurazko ekonomia-printzipioaren ondorioz eman zaiela Auzitegi Penalei arazo zibil soilak diren gaiei buruz erabakitze aukera, sententzia zehatzailea den kasurako (salbuespenezko kasutan absolutorioa denean ere, ikus KPeko 118.artikulua). Baina autore berak bikoiztasun honen amaiera aldarrikatzen du¹⁵. Horretarako Kode Penalean igorpen arau orokor bat sartu beharko litzateke non kontratuz-kanpoko erantzukizunari buruzko arazoak¹⁶ konpontzeko Kode Zibileko artikuluetara igorriko gintuzketera; edo hau egin gabe ere, Epaiketa Kriminalaria buruzko Legearen 100. artikulua¹⁷ behar bezala idaztearekin emaitza berdina lortuko litzateke¹⁸.

8. Ikus denen ordezkari gisa PANTALEON, F., “Comentario al artículo 1902”, *Comentarios del Código civil del Ministerio de Justicia*, Madrid, 1991, 1970 eta ond. orriak; eta IDEM, “Perseverare diabolicum, ¿otra vez la responsabilidad civil en el Código penal?”, *Jueces para la Democracia*, 19. zkia., 1993, 6 eta ond. orriak.
9. Kontutan izan delitu bat egin arren ekintza horrek kalterik eragin ez badu, ez dela erantzukizun zibilik sortuko.
10. Gerta daiteke pertsona hau ez izatea kriminalki erantzule dena, Kode Penaleko 120-121 artikuluek diotenaren arabera.
11. LACRUZ BERDEJO, J.L. eta SANCHO REBULLIDA, F. A., autoreek azpimarratzen dutenez eragindako kaltea konpondu egin behar da nahiz “delitu baten ondorio izan, nahiz portaera ez-deliktiboen emaitza izan”. (*Elementos de Derecho civil*, II, 1., Barcelona, 1988, 488.orria). Iritzi berdinekoa da DIAZ ALABART, S., “La Responsabilidad por los actos ilícitos dañosos de los sometidos a patria potestad o tutela”, *ADC*, 1987, 800. orrian.
12. Kode penal zaharrean 19-22 eta 101-111 artikuluetan jasotzen zen.
13. Autore guztiak ez dira hain kritikoak baina YZQUIERDO TOLSADA, M., (*La responsabilidad civil. Contractual y extracontractual*, I, Madrid, 1993, 32.orria eta “El perturbador artículo 1092 del Código civil: cien años de errores”, *Centenario del Código civil*, II, Madrid, 1990, 2110. orria), goian aipatutako esaldi horretan antzematen den bezala, araudi bikoiztasunaren kontra dago. Ikus zentzu honetan ere: MONTÉS PENADÉS, “Comentarios”, aip. lan., 573. orria eta PANTALEON, “Comentario”, aip. lan., 1973. orria.
14. RUIZ VADILLO, E., “Responsabilidad civil”, *Comentarios a la legislación penal*, V, 1, zuzen. Cobo, Madrid, 1985, 364-365 orriak.
15. “En tono fuertemente combativo” adjetibo erabiltzen du bere iritzia sendotzeko. Ikus PANTALEON, “Perseverare diabolicum...”, aip. lan., 6.orrian.
16. Aurrerago aztertuko dugun bezala delitutik jaiotako erantzukizuna kontratuz kanpoko erantzukizun gisa definitu daiteke.
17. LEKr. 100. artikulua eragun testuan akzio zibila delitutik edo hobenetik ere jaiotako kaltegarrietatik eratorzen diren erantzukizun zibilak epaitzeko eskumena dutela.
18. Intenbide hau PANTALEON autoreak proposatu du (“Perseverare diabolicum”, aip. lan., 6. orria eta “Comentario a la sentencia de 25 de junio de 1983”, *Cuadernos civitas de Jurisprudencia civil*, 6. zkia., 794. orria) eta beste idazle asko alde azaldu dira, besteak beste, YZQUIERDO TOLSADA, “El perturbador artículo 1092”, aip. lan., 2135. orrian.

Ildo honetan, zenbait irakaslek (eta gu beraiekin bat gatoz) bikoiztasuna mantentzearen alde eman dituzten arrazoiak gogorki kritikatzeko ditu :

- Auzitegi penalek delitutik eratorritako erantzukizun zibilari buruz aritzeko eskumena izaten jarraitu behar dute, baina hori ziurtatzeak ez du esan nahi gaiak berak Kode Penalean jasota egon behar duenik. Epailen penalek ez dituzte Kode Penalean jasotako artikulua aplikatzen soilik eta zurian dauden lege penalen bitartez beste legeetarako (hauen artean Kode Zibila dugularik) igorpenak egin ditzakete.

- Bestalde, Kode Penaletik gai hau kentzeak legegilearen biktimarekiko kezka gutxitu dela pentsa arazi dezakeela dio zenbaitek. Baina aurreko puntuan adierazi dugun gisara, egungo arauak ezabatzeak ez du prozedura penaletan ordain-sari bat galdatzearen aukera desagertarazten. "Aldatuko litzatekeen gauza bakarrik aplikagarriak diren arauen kode-kokalekua izango zen, zeinak izaeragatik dagokien Kodean egongo bailirateke"¹⁹.

Kaltetuak babesteko modurik egokiena berme fondo bat sortzea litzateke (jadanik Estatuan eta beste atzerriko herrialde askotan terrorismo delituen kaltetuei laguntzeko sortu denaren antzekoa), gutxienez doluz egindako delituen biktimei eragindako kalteak ordaintzeko erabili beharrekoa.

- Kode Zibilaren kontratuz-kanpoko erantzukizunari buruzko araudia zaharkitua gelditu da eta jurisprudentziak dagoeneko gaintu egin du, baina horrek ez du esan nahi artikulua hauetara egindako igorpena okerra denik. Funtsezkoena Kode Zibilaren 1902-1910 eta 1092-1093 artikulua erreformatzea izango da, bertan Auzitegi Gorenaren, 1. eta 2. Salak emandako jurisprudentzia isladatuz.

- Azkenik, gai honetan araudi zibila soilik aplikatuz gero Kode Penalaren xedapen batzuk praktikan ez lirateke erabiliko, baina, emaitza hau negatiboa izan beharrean, zenbaitetan, guztiz komenigarria ere bada²⁰.

Idea guzti hauek ausnartuz, beraz, zera esango dugu: araudi bikoiztasunaren ondorioz, uzi edo pretentsio bakar bat funtsatzen duten arau ezberdinen lehiaketa baten aurrean gaude, Zuzenbide Germanikoan *Anspruchsnormenkonkurrenz* deritzona. Hori dela eta, erantzukizun zibilari buruzko pretentsioa prozedimendu penalean egikaritu izan bada, egitate honek erantzukizunaren preskripzioa etengo du (15 urtetakoa²¹), Kode Zibilaren 1973. artikulua dioena aplikatuz. Lehiaketa hau egongo ez balitz, aldiz, eskaera zibila ez zen etengo prozesu penalaren haseragatik, besterik gabe eseki egingo litzateke, bigarren eskaera ez zelako kontutan hartuko²².

Baina, noiz aplikatuko dugu araudi penala eta noiz zibila? Teorian behintzat Kode penaleko arauak sententzia penal zigortzaile bat eman denean soilik aplika daitezke, gainontzeko supostuetan (zigor penalik ezarri ez denean edo subjektua erantzule kriminal ez denean) Kode Zibilera jo beharko dugularik. Azken baieztapen hau, ordea, ez dator bat jurisprudentziak jarraitu duen bidearekin²³ *eta prozesuari hasiera eman ondoren, erantzukizun penala amaitu den kasuetan ere (errudunaren heriotza, amnistia, indultua, preskripzioa²⁴)* Kode Zibilaren eraentza aplikatzen du. Bestalde, sententzia penala absolutorioa bada kalteen ordainketa-auzia eskumen zibilean ikusiko da baina, kasu honetan ere, badago salbuespen bat: Kode Penalaren 118 artikulua dioenez errudunen bat inguruabar salbuesle batengatik penalki salbuesia izan bada ere, haren erantzukizun zibila Kode Penalaren erizpideak aplikatuz ezarri beharko da²⁵.

19. PANTALEON, "Perseverare diabolicum...", aip. lan., 7. orria.

20. PANTALEON, "Perseverare diabolicum...", aip. lan., 8-10 orriak.

21. Preskripzio epeak ere zenbait zalantza eta eztabaida eragin ditu: erantzukizun hutsak edo delitutik eratorritak ez denak urtebeteko preskripzio epea duen bitartean (1968.2 art.), *ex delicto* erantzukizunak epe zehatzik ez duenez, 1964. artikulua aplikatzen zaio, eta ondorioz, epea 15 urtekoa izango da (Ikus YZQUIERDO TOLSADA, "El perturbador artículo 1092", aip. lan., 2128. orria. Erizpide honen kontrako azaldu da berriz, Auzitegi Gorenaren 1994/V/10 sententzia, bertan esaten zaigunez delitutik eratorritako akzio zibila "urtebetan preskribatzen da").

22. Preskripzioa eskubideen eta akzioen iraungiera mota bat da, beren tituludunaren egikaritzea ezagatik legeak ezarri duena eta, beti ere, subjektu pasiboak bere aldetik eskubide edo akzio honen existentzia aitortu ez badu. Beraz, preskripzioa ez da epe zehatz baten igarotze hutsa, KZren 1961 art. ak dion bezala, ezta denbora horretan eskubide edo akzioen egikaritze-ezak eragindako fenomeno ere. Beharrezkoa da elementu hauetaz gain, harreman horretako subjektu pasiboak eskubide horren existentzia ez aitortzea. Horregatik, doktrinan, preskripzioa harreman juridikoaren isiltasuna bezala definitzen da. Preskripzioaren etendura beraz, isiltasun honen austeia izango da.

KZren 1973. art. ak dionez preskripzioa bi eratarata etengo da: 1.- auzitegien aurrean akzioak egikaritzeagatik edo epaitegietatik kanpo egindako erreklamazioagatik, 2.- subjektu pasiboak egindako erlazioaren existentziaren aitortzeagatik. Etenduraren ondorioz garrantzitsuena preskripzioa amaierazten duela da, baina honek ez du eragozten, gerora, beste preskripzio epe berri bat martxan jartzea etendura egintza bukatzen denetik: egintza honen aurretik pasatako denborak ez du ezertarako balio eta preskripzio berri honen epeak osorik pasatu beharko du. Esekipena berriz, akzioaren erabilera ezinezkoa den garai batean ematen da, eta une hau pasatukoan epeak zegoen momentutik jarraitzen du kontatzen.

23. Garbi ikusten da sententzia hauetan: 28/I/1983; 5/VII/1983; 21/III/1984; 3/III/1988, 1/IV/1990; 10/V/1993.

24. Beraz sententzia zigortzailerik gabe.

25. Ikus bereziki MONTÉS PENADÉS, "Comentarios", aip. lan., 575-585 orriak.

1.3. Zehapen zibilaren eta penalaren arteko ezberdintasunak

A. Legekontrakotasuna

Zuzenbide Penalean, normalki, babesten diren ondasunak publikoak izaten dira, baina ez beti, hau da, batzutan eredu edo tipo penalek interes partikularrak babesten dituzte, jabetzaren kontrako delituetan gertatzen den bezala. Dena dela, azken kasu hauetan ere, legeak, batez ere, jabetzaren kontrako portaeren hazkundera ekidin nahi du, kaltetuen babesa bigarren maila batean utziz²⁶.

Garai historiko bakoitzean, legegileak "taldearentzat balio haundiena duten baloreak babesteko aukera hartzen du"²⁷. Balore hauek urratzen dituzten egitateak tipikoki legekontrakoak dira²⁸ eta horregatik, delitu edo hoben bezala kontsideratuko dira. Ez-zilegitasun zibila, berriz,

legeak tipifikatu gabeko egitate kaltegarria besterik ez da. Ez da posible izango egitate hauen zerrenda bat legean aurrez ezartzea, erantzukizun zibila babesturik dagoen interes bat urratzen duen edozein jokabidetik eratorri baitaiteke²⁹.

Laburbilduz, Zuzenbide Penalean legekontrakotasuna *nullum crimen sine lege* printzipioaren ondorio den heinean, zuzenbide zibilean *alterum non laedere* maximan oinarritzen da.

B. Erruduntasuna

Erruduntasun penalak galdatzen du epaitzen den portaerak destain minimo bat merezi izatea, alegia, jokabideak nolabait ere destaingarria izan behar du. Zuzenbide zibilean ez da baldintza hau galdatzen, askotan gizartearen gutzitx onartuak diren portaerak ere zigortu egiten baitira³⁰.



5. irudia

26. ANGEL YAGÜEZ (*Tratado de responsabilidad*, aip.lan., 50.orria) idazlearen iritziz, jabetza legegilearen ustetan gizartearen egitura ekonomikoaren zutabe da eta balore abstraktu bezala babesten da.

27. YZQUIERDO TOLSADA, *Responsabilidad civil*, aip. lan., 32.orria.

28. Legekontrakoak dira legearen kontra doazelako eta tipikoak, egitate horiek legean espreski aurrikusitako suposamendu baten barne sailka daitezkeelako.

29. YZQUIERDO TOLSADA autoreak (*Responsabilidad civil*, aip. lan., 3.orria) dionez ez da zuzena erantzukizun zibilari buruz aritzerakoan legekontrakotasuna aipatzea, zeren kaltea eragin duen egitatea zilegia bada ere, egileak galera hori konpondu beharko baitu. Adibidez kotxe-gidari batek pertsona bat harrapatzen badu, ordainsaria beti pagatu beharko du, nahiz eta istripua frenoak autsi direlako gertatu. Eta gauza bera gertatuko da finka bat erretzen denean, hegazkin istripu baten ondorioz. Nekazariak indemnezioa eskatzeko eskubidea izango du.

30. Aire Garraio Legeak, adibidez, kalteordaina pagatu beharra galdatzen du "garraio-egileak, operatzaileak edo haren langileek behar hainbateko diligentziaz dihardutela frogatzen badute ere".

Praktikan, ezberdintasun honek garrantzi handia izango du, zuzenbide penala aplikatzeko ez baita beharrezko izango egintza ez-zilegiak kalterik eragitea, baina zuzenbide zibilera jotzeko berriz, derrigorrezkoa da egintza horrek galera bat sortzea nahiz eta bere izaera zilegia izan. Erantzukizun zibilik sortzen ez bada kalterik egon ez delako izango da, baina, ez egilea errudun ez delako. Penalki egintza bat egozteko nahikoa da egilearen "borondatea benetan errudun izatea, beti ere, berau kanpo munduan isladatu bada"³¹.

Hori dela eta, prozesu penalean epaitutako egitateetan eskuhartu duten elementu subjektibo eta pertsonal guztiak hartuko dira kontutan, eta Kalte Zuzenbidean salbuetsiak izango dira, epaiketa datu objektibo eta abstraktueta bakarrik oinarritzen delako.

C. Ondorioak

Lehenik eta behin, erantzukizun penalean ez da beharrezko izango kalte materialik egotea. Horregatik saiakera graduko delitueta, droga trafikokoetan, arma edukitzea ez-zilegizkoetan, e.a. erantzukizun penala ematen dela egiaztatu daiteke, baina ez zibila, kalterik sortzen ez baitute.

Halaber, ordena penalean ezin da pertsona bat zehatu, honek azaldutako portaera aurrez arau batetan jaso ez bada, alderantzizko kasuan, epaile zibilak kasu bakoitzean askatasun handiz erabakiko du: analogia zein interpretazio hedatzailea ere erabiltzeko ahalmena baitu.

Aztertu dugun guztiaren ondorioz, hobe da arlo zibilean zuzenki "erantzuleez" hitzegi beharrean "erantzukizuna jasaten duten ondareei buruz" mintzatzea, azken batean hori baita gertatzen dena: ordaintzera behartua dagoen subjektua ez da beti kaltea eragin duen subjektua izango baina, hala ere, bere ondareak gutxitze bat jasango du, kalte-ordainaz erantzun beharko du eta.

Bukatzeko esan kaltetuaren jarrerak kaltearen sorreran zerikusia izan badu ere, egile

zuzenaren erantzukizun penala ezartzerakoan, ezingo dela kontutan hartu, baina ordain-sariaren zenbatekoa kalkulatzeko aintzat hartuko da³². Pertsona baten erantzukizun penala ez da beste batenarekin konpentsatuko³³, *baina ondorio ekonomikoak arintzeko balioko du*³⁴.

1.4. Sententzia penalaren eragina ebazpen zibilarekiko

Sententzia penal zigortzaileak, akzio erreserba espresua egin denean, epaile zibila nolabait ere lotetsi egiten du delitu egilearen erruduntasuna eta egintzaren legekontrakotasuna ezartzen baititu, baina gainontzeko gaitan epaile zibilak askatasun osoz jardungo du: esate baterako erantzukizun zibilaren *quantum* ezberdin bat finka dezake eta beste erantzule zibil batzuk ere izenda ditzake. Sententzia penala absolutoria izan arren, bestalde, Auzitegi zibilak egintzak berriro ere epai ditzake ez-zilegitasun zibila eman den ala ez aztertzeko³⁵. Auzitegi Goreneko 1. Salak 1989ko ekainak 9ko sententzian dioen bezala "sententzia penalek ez dituzte epaile zibilak lotesten, eta ez dute aurrepaituko azken hauek egitateekiko egin dezaketen balorazioa".

Halaber, akzio zibilaren erreserba espresurik egin ezean, sententzia zigortzaile penalak delitu zehatz horretatik eratoritzen den erantzukizun zibilaren zenbatekoa adieraziko du. Kasu honetan, bigarren sententzia zibil bat ere posible izango da, lehenengoaren osagarria izango dena, non sententzia penalak kontutan hartu ezin izan dituen egitateak aztertuko baitira. Baina urrunago ere joan gaitzake: Epaiketa Kriminalari buruzko Legearen 108. artikulua aztertuz gero, Ministeritza Fiskalak edo kaltetuak lehenengo prozesuan akzio zibila egikaritu ez badu ere (eta noski, berau espreski erreserbatu ez duenean), ekintza falta hau ez da uko egite isilbidezkotzat hartuko eta ondorioz subjektu horiek auzitegi zibilaren aurrean gai horrekiko prozesu berri bat tarteratzeko gaitasuna izango dute³⁶.

31. YZQUIERDO TOLSADA, *Responsabilidad civil*, aip. lan., 33.orria.

32. Kode Penaleko 114. artikulua dion bezala "biktimak bere jokabidearekin kaltea eragiten lagundu badu, Epaile edo Auzitegiek bere kalte-ordainaren edo indemnizazioaren zenbatekoa muga dezakete". Baina ez da kontutan hartuko biktimaren edozein jokabide baizik eta nolabait ere objektiboki hari egotzi daitekeena: gerta daiteke kaltetuaren egitatearen eta ondorio kaltegarriaren artean kausalitate erlazioa ematea baina, "bizitzaren arrisku orokorren" baten ondorioz sortutakoa izanagatik berau kaltetuari inputagarria ez izatea.

Ikus MONTÉS PENADÉS, "Comentarios", aip. lan., 613-614 orriak eta bereziki egozpen objektiboari buruz PANTALEON, F., "Causalidad e imputación objetiva: criterios de imputación", *Centenario del Código civil*, II, Madrid, 1990, 1561 eta ond. orriak. Baita ere, MORENO FLOREZ, "¿Concurrencia de culpas o concurrencia de causas?", *AC*, 1986, 2293 eta ond. orriak.

33. Garbi adierazten du Auzitegi Goreneko 1. Salaren 1982/XII/3 sententzian.

34. Erizpide hau lehenik Auzitegi Gorenaren 1. Salak jarraitu zuen, bereziki 1990/II/5; 1990/VII/11, 1991/II/21, 1992/III/18 sententzietan, eta geroago 2. Salak ere erabili izan du: 1990/III/9; 1990/XI/5; 1994/X/29; 1995/III/24.

35. Ikus honi buruz sakonago MONTÉS PENADÉS, "Comentarios", aip. lan., 579. orria.

36. PANTALEON, "Comentario al artículo 1902", *Comentario del Código civil*, aip. lan., 1977. orria.

Arlo honetan bigarren arazo bat ere planteatzen da prozesu penalaren lehentasunari buruzkoa. Auzitegi Gorenak sarritan aipatu izan du beharrezkoa dela akzio zibilaren aurrean prozesu penalari lehentasuna ematea³⁷, alderantzizkoa ezinezkotzat jo duelarik.

Auzitegi Konstituzionalak, 241/1991ko abenduak 16ko sententzian, eztabaida honi bukaera eman dio, Auzitegi Gorenaren 1. Salaren 1989ko otsailak 23ko sententzia deuseza deklaratu baitu. Bertan esaten zaigunez “aurkatutako sententziak arau aplikagarria interpretatu du Konstituzioko 24.1 artikuluan jasotako babes judizial eraginkorra lortzeko eskubidea gutxien faboratzen duen eta hertsiena den zentzuan, eta azken finean, beraz, helegilearen ohore, intimitate eta imagina eskubideena ere; honekin aipatutako eskubideen babes zibilaren ahultzea edo mugatzea eragiten delarik bide penalari lehentasuna emanez; ordena penala burutzen duen eskuhartze minimo printzipioaren aurka joanez eta konstituzionalki onartezina den funtsezko eskubideak urratzen dituelarik (kaltetutakoak lehenengo bide penal guztia ibili beharko du, gero berriro ere zibilari hasiera emateko)”.

1.5. Erantzukizun zibilaren aseguruia kaltetuaren babes instrumentu

Kalte baten egileak, besterik ez bada ere, beti erantzun beharko du bere ondarearekin eragindako galeren aurrean, eta horregatik “segurtasun falta” honi aurre egiteko Aseguruen instrumentua sortu da Zuzenbidean. Erakunde hau kalte egileak sortarazitako erantzukizun zibilaren ordezkua izango da, baina bertan bi kalte mota hartzen dira kontutan: bata asegurdunak bere egintzarekin kaltetuaren ondarean eragin duena, eta bestea, kalte-ordaina pagatu beharrak asegurdunaren ondarean sortarazten duena.

Erantzukizun zibilaren bitartez, kaltearen zenbatekoa egilearen ondareari jasan arazten bazaio ere, aseguru kontratuak zama hori asegurdunaren ondaretik aseguratzailearenera pasatzen du. Legeak, derrigorrezko aseguru kasuan, eta borondatearen autonomiak, borondatezko aseguruetan, kaltetuaren esku uzten dute elkarte aseguratzailearen kontra joateko akzio zuzen bat³⁸, zeinaren bidez azken honek indemnizazio obligazioa zuzenean bete beharko baitu, honela kaltearen konponketa azkartzen delarik³⁹.

Derrigorrezko aseguruia aztertzerakoan legearen kontraesan garbi bat topatzen dugu: alde batetik Aseguru Elkartek erantzule zuzen bezala agertzen zaizkigu, baina bestetik ez zaie Elkartek hauei onartzen alderdi izaera propiorik prozesu penalean⁴⁰. Auzitegi Konstituzionalak, sententzia 4/1982ko otsailak 8koan, arazo hau aztertu du. Bertan, aditzera ematen zaigunez legeak onartzen die Aseguru Elkarteei legitimazioa prozesu penalean bere burua defendatzeko baina, soilik sumario faserako non indemnizazio behararen nahiz aseguru kontratuaren existentzia eta hedadura aztertzen baitiren, eta orduan izango dute aukera elkarrekin beren erantzukizuna mugatzeko edo gaitzetzeko. Dena dela, elkarte hauek ez dira inoiz ere hirugarrenengo kaltetu bezala kontsideratuko, kontratu edo lege bidezko erantzule “soilak” baizik. Ideia hau geroago ere Auzitegi Konstituzionalaren beste sententzia batzutan jaso izan da, hala nola, sententzia 48/1984, apirilak 4koa; 43/1989, otsailak 20koa eta 57/1991, martxoak 14koa.

Borondatezko Aseguru kasuan ez da honelako arazorik planteatzen, Aseguru Kontratuari buruzko Legea 50/1980, urriak 8koak, aurrikusten duenez kalte egilearen doluzko egintza baten ondorioz sortutakoa denean, aseguratzaileak asegurdunaren aurkako errepikapen eskubidea izango du⁴¹. Hori dela eta, Kode Penalean espreski ezartzen du kaltetuak aseguratzaileari zuzenean ordainsaria galdatzeko

37. Lehenengo garai batean Auzitegi Gorenaren 1. Salak 1986/X/28, 1987/III/23 eta 1987/X/11 sententzietan interesdunak lehenengo akzio zibila tarteratzeko aukera zuela onartu zuen, baina 1988 urtetik aurrera auzitegiaren iritzia aldatu egin da, eta egitate zigorgarriak, zehazki, desakato bezala tipifikatuak, alegia kargu publikodun pertsonen egindakoak direnean, lehenik alor penalean epaituak izan behar dutela adierazi du, bide zibilean tarteratutako aurre-eskakizuna deuseza izango delarik (ikus Auzitegi Gorenaren, 1. Salaren sententziak: 1988/XI/11, 1989/I/27, 1989/II/23, 1989/X/11 eta 1991/XI/14).
38. Aseguru Kontratuaren Legea (1980) onartu aurretik arazo asko planteatu ziren gai honen inguruan kaltetua ez baitzen kontratuaren alderdikide bat eta ondorioz akzio zuzenik ere ez zitzaion eskeintzen. Lege hori argitaratua izan denetik berriz, ez dago zalantzarik bere 76. artikulua espreski akzio hori onartu baitio kaltetuari. Jurisprudenzian ikus Auzitegi Gorenaren 2. Salaren hurrengo sententzia hauek: besteak beste, 1980/X/23, 1984/III/4, 1987/X/28, 1988/II/22, 1989/XII/4, 1990/XII/11 eta 1991/X/7.
39. Kaltetuak aseguratzailearen kontrako akzio zuzenik izango ez balu, lehenik asegurdunaren aurka joan beharko luke eta gero honek bere elkarte aseguratzaileari eskatu beharko lioke konponketari aurre egitea. Bidea beraz konplikatu egiten da eta ordainsaria jasotzerako denbora asko igaroko litzateke. Aipatutako akzio hau lehenengoz 1962ko abenduak 24ko Motoredun Ibilgailuen Zirkulazio eta Erabilerari buruzko Legean onartu zen eta ikusi dugun bezala berrikuntza aipagarria izan zen.
40. SOTO NIETO, F., “La acción directa contra el asegurador en el proceso penal por hechos imprudentes”, *La Ley*, 10 de diciembre de 1993, 3. orrian adierazten duen bezala.
41. “Elkarrenganako obligazio bat ezartzen duen kontratuaren betepena alderdikide batek bakarrik galda dezake” dio SOTO NIETOk (“La acción directa contra...”, aip. lan., 6 o rria), ondorioz, eskubide hori onartzen bazaie aseguratzaileei alderdi prozesal izaera dutelako izango da. MONTES PENADESek dioenez (“Comentario”, aip. lan., 628. orrian) errepikapen eskubidea emateko beharrezkoa da aseguratzaileak asegurdunaren aurrean salbuespenen bat edukitzea, alegia, arrazoi oposagarriren bat (kaltetuari eragiten ez dioten baina asegurdunaren aurrean planteatu daitekeena) izatea.



6. irudia

posibilitatea duela⁴², eta akzio hau gainera ordena zibilean zein penalean erabili ahal izango du. Prozesuan aseguratzaileak erantzule zibilaren lekua beteko du eta bere erantzukizunari buruzko gorabehera guztietan benetako alderdi prozesal gisa eskuhartuko du⁴³.

Nolanahi ere, aseguratzailearen eta asegurdunaren artean sortzen den harremanak izaera solidarioa izango du, honela kaltetuak batoren nahiz bestearen kontra joateko aukera izango duelarik. Izaera honek bigarren ondorio bat ere eragiten du, litiskontsortzio pasibo beharrezkoa⁴⁴ salbuesten baitu Kode Zibilaren 1144 artikulua dionaren arabera⁴⁵.

Bukatzeko aipatu beharra dago aseguratzaileak ordaintzeko obligazioa izango duela bakarrik, asegurduna prozesu penal edo zibilean pagatzera zigortua izan denean eta aseguru polizan ezarritako kantitateraino⁴⁶.

2. Erantzukizun zibilaren araudia kode penalean

Aurrerago ere aipatu dugun bezala, Kode Penaleko 118. artikulua erantzukizun penala ematen ez den kasuetan (egitate horietan salbuespen arrazoi bat azaldu delako), baina,

42. Kode Penalak hala dio 117. artikuluan: "Aseguratzaileak (...) erantzule zibil zuzenak izango dira legalki edo hitzarmen bitartez aurrikusitako indemnizazioaren baliorarte, beti ere errepikapen eskubidea izango dutelarik".

43. Prozesuan aurkatu ditzakeen salbuespenak izango dira, alde batetik, asegurdunak kaltetuaren aurrean dituenak (kaltetuaren erru eskusiboa, obligazioaren izaerak eragindakoak...) eta bestetik, berak hirugarren kaltetuaren aurrean pertsonalki dituenak (SANCHEZ CALERO, F, "Comentario al artículo 76 de la Ley de Contrato de Seguro", *Comentarios al Código de Comercio y legislación mercantil especial*, zuzen. Motos eta Albaladejo, XXIV, 2., Madrid, 1985, 619 eta ond. orriak).

Ikus, Auzitegi Gorenaren 2. Salaren sententzia hauek: 1984/X/5, 1985/IV/26, 1986/XII/20, 1987/IX/21, 1988/V/10, 1989/XII/1 eta 1991/X/11.

44. Litiskontsortzio pasibo beharrezkoa emango balitz kaltetuak aseguratzailea eta asegurduna (biak, ez bata ala bestea) demandatu beharko litzuzke nahi eta nahi ez, eta honela egingo ez balu prozesuak ez luke aurrera egingo akats formal bat legokeelako.

45. Arazo hau aurrerago aztertuko dugu sakonago.

46. Beraz, sententzian kopuru haundiagoa ezarri denean, gainontzekoa asegurdunak ordaindu beharko du. Aseguratzailearen erantzukizun zibila mugatua da.

erantzukizun zibila sortu denetan (kalte bat eragin delako), aplikatu beharreko erregimena ezartzen du. Berezik, kalte sortzaileaz gain harekin batera erantzungo duen erantzule zibilaren figura arautzen du (KP 118. 1, 3 eta 4 art.). Azken hauek zuzenean beste pertsona batek eragindako galerak ordaindu beharko dituzte harekin batera eta legeak hala diolako, alegia, erantzule zibil solidarioak izango dira. Epailiek ezarriko dute pertsona bakoitzak ordaindu beharreko kantitatea kasu zehatz bakoitzean⁴⁷.

Bestalde, 120. artikulua ordezko erantzuleez hitzegiten digu: pertsona hauek kalte sortzailearen lekua beteko dute haren erantzukizun zibilari aurre eginez (judizialki ezgaitua izan denaren kasuan guraso edo tutoreek; pertsona juridikoen ordez beren titularrak...)⁴⁸.

RUIZ VADILLO autoreak gai honetan Lege Organikoa 8/1983, ekainak 25ekoak ekarritako erreforma kritikatu du⁴⁹, lege honek Kode zaharreko 20. artikuluari parrafo akasdu berri bat erantsi ziolako, eta gezurra badirudi ere, hamairu urte geroago Kode Penal berria egiterakoan legegilea ez da gauza izan akats hau konpontzeko, 20. artikulua zaharraren azken parrafoa egungo 119. artikuluan inolako aldaketarik gabe jaso baitu. Testu horretan adierazten denez epailak salbuespeneko arrazoi bat dagoelako, sententzia absolbatzaile bat ematen duen guztietan egoki diren ondori zibilak ezarri beharko ditu, baina agindu honek supostuak asko mugatzen ditu, era honetako kasu gehienak (eroei, adin-txikikoei eta alterazio larriak dituzten pertsonen buruzko kasuak) auto bitartez amaitzen baitira eta ez sententzia absolbatzaile bitartez, lege prozesalak hala galdatzen duelako. Honen ondorioz, epailak ezingo du erantzukizun zibilik ezarri eta kaltetuak ez du ordainsaririk jasoko.

Bigarren arazo bat ere azaltzen zaigu 118. eta 120. artikulua aztertzerakoan, bertan galdatzen diren ukanbeharrak ez direlako bat etortzen Kode Zibilean kasu berdinerako ezarritakoekin. Auzitegi zibil batek delitu edo hoben batetik eratorritako erantzukizun zibilari buruz erabaki behar duenean, Kode Penaleko xedapenak aplikatu beharko ditu Kode Zibileko 1092. artikulua hala agintzen duelako⁵⁰. Baina behin-behineko largespena edo sobreseimendua erabaki denean (LEKr. 641 art.) eta alderdiak eskumen zibilera zuzentzen direnean, epaile zibilak Kode Zibileko 1902 eta ondorengo artikulua aplikatzeko aukera izango du (legedi horretako 1093. artikulua dioena jarraituz) epaile honek ez baitu eskuduntzarik epaitzen dituen egitateak delitu edo hoben direla esateko; bai ordea, erru edo axolagabekeriari egon dela adierazteko⁵¹.

Bi kasutan egitateak berdinak badira ere, emaitzak oso ezberdinak izango dira. Kode Penaleko artikulua aplikatzen badira, guraso eta zaintzaileen erantzukizuna ezartzeko beharrezkoa izango da lehenik, pertsona hauen jokabidean errua edo axolagabekeria egon dela frogatzea⁵². Kode Zibilaren 1903. artikulua jarraitzen bada berriz, frogaren zama alderantzizkoa da, gurasoek eta zaintzaileek frogatu beharko dute "kaltea ekiditze arren, familia-buru on baten diligentzia jardun dutela".

Doktrinaren iritziz⁵³ oso larria da bide bakoitzetik joanez hain emaitza ezberdinak lortzea eta horregatik, araudiaren berdinketa galdatzen dute delitutik eratorritako erantzukizun zibila eta egintza edo omisio ez-doluzko baten ondorioz ezarritakoa berdinak izan daitezzen, bai eduki eta hedadura aldetik eta baita guraso, tutore, enpresario, eskola zuzendari eta abarren ordezko erantzukizuna ezartzerakoan ere.

47. Sakonkiago, ikus DIAZ ALABART, "La responsabilidad por los actos ilícitos dañosos de los sometidos a patria potestad o tutela", aip. lan.; GOMEZ CALLE, E., "La responsabilidad civil del menor", *Derecho privado y Constitución*, 1995, 87 eta ond. orriak eta CONDE-PUMPIDO, C., "Los problemas de la responsabilidad civil por los hechos ilícitos de los incapaces", *Estudios de Derecho civil en honor al profesor Castan Tobeñas*, II, Pamplona, 1969, 83 eta ond. orriak.
48. 118. artikulua eta 120. artikulua arautzen duten kasuetan artean ezberdintasun nabarmena dago nahiz eta berdintsuak ematen dute irakurketa azkar batean. 120. artikulua soilik ezgaitua izan den 18 urtetik gorakoari aplikatuko zaio, bera baita gurasotasun edo guraso boteretasun luzatupean egon daitekeen bakarra eta ondorioa ere ezberdina da, kasu honetan guraso edo tutoreak ez dira erantzule zuzenak ordezkoak baizik.
49. RUIZ VADILLOk dionez ("Responsabilidad civil", aip. lan., 364-365 orriak) "nolanahi ere, eta datu aipagarri bezala, esan beharrean aurkitzen naiz eta lotsagarria da gainera, nire bizitza judizial guztian ordena penalean 25 urtetik gorakoa dena, ez dudala sekula 20. artikulua aplikatzen ikusi, puntu honetan (...) Zuzenbide Penal sustantiboaren eta prozesalaren artean dagoen armonia faltagatik, eta akaso legeak aplikatu behar ditugunok ez dugulako behar hainbateko ahaleginik egin arauak efikazia printzipioetara egokitzeko, beti ere legea errespetatuz".
50. Kode Zibilaren 1092. artikulua: delitu edo hobenetatik eratorritako obligazio zibilak, Kode Penaleko xedapenen bitartez arautuko dira.
51. Kode Zibilaren 1093. artikulua: legeak zigortzen ez dituen erru edo axolagabekeriaren ondoriozko egintza edo omisioetatik eratorritako (obligazioak), IV. Liburu XVI. tituluko II. atalean azaltzen diren xedapenen menpe geldituko dira.
52. MONTÉS PENADÉS ("Comentarios", aip. lan., 632-633 orrietan) autoreak azaltzen duen gisa gurasoak eta zaintzaileak zuzenki erantzungo dute beren jokabidean errua edo axolagabekeria eman denean eta kalte sortzailearekin bat eginda, baina, pertsona hauek kaudimengabeak direnean edo existitzen ez direnean adin-txikikoak edo ezgaiak pertsonalki erantzungo du.
53. Gai honetan oso esanguratsuak dira RUIZ VADILLOren lanak: "Responsabilidad civil", aip. lan., 360 orria eta "Un supuesto de condena de un empresario al amparo del artículo 1903 del Código civil, sin estar individualizado el conductor causante del accidente automovilístico", *Rev. Der. Cir.*, 6 zkia., 1975.

120. artikulua pertsona natural edo juridikoen erantzukizun zibil subsidiarioa edo ordezkoa arautzen du, azken hauen denda nahiz enpresatan, polizia erreglamenduak urratu direnean, edo beren titulartasuneko aldizkari, telebista edo gainontzeko komunikabideak delitu edo hoben bat egiteko erabiltzen direnean⁵⁴. Baina, batez ere, 4. parrafoa izango da garrantzitsua enpresa munduan, bertan enpresarien edo pertsona juridikoen gestoreen erantzun beharra jasotzen baita. Hala da, artikulua honetan irakurri daitekeenez “erantzule zibilak izango dira ere, kriminalki erantzule direnen ordezkariak (...).4. Edozein motatako industrian edo merkataritzan diharduten pertsona naturalak edo juridikoak, beren menpekoek nahiz langileek, ordezkariak edo gestoreak dagozkien zerbitzuak betetzerakoan egindako delituengatik edo hobenengatik”⁵⁵.

Kode Zibilaren 1903. IV. artikulua, bestalde, enpresa edo lantoki bateko zuzendarien eta jabeen erantzukizun zibila berresten du, beren langileek dagozkien funtzioak betetzerakoan eragindako kalteengatik⁵⁶. Pertsona hauen erantzukizuna desagertu egingo da famili-buru on baten diligenzia jardun dutela frogatzen badute⁵⁷.

Eta 1904 artikulua gehitzen du: “menpekoek egindako kalteengatik ordaintzen duenak haiei ordaindutakoa itzultzeko eska diezaieke”. Hemen ere araudi bikoiztasunak zenbait arazo panteatzen ditu: Kode Zibilak enpresariaren diligenzia frogatzea ahalmentzen du, baina, Kode Penalak ez du azken neurri hau onartzen, ondorioz, lehenengo kasuan xedapen zibilak enpresaria erruduntzat jotzen du eta beraz, erantzule zuzena⁵⁸ izango da eta araudi penalarentzat, berriz, erantzule ordezkia eta objektiboa izango da⁵⁹. Xedapen zibila gogorragoa da enpresaria beste batek eragindako kaltearen erantzule zuzen izendatzen baitu, baina kontrakoa frogatzea onartzen du Zuzenbide

Penalak ez bezala, non enpresaria beti ordezkio erantzule izango baita. Dena dela, beti ere ezusteko kasu bat egon dela edo bere diligenzia absolutua izan dela aurka daiteke eta, hau ere ezinezkoa bada, azken irtenbidea langileari ordaindutakoa bueltan eskatzea izango da.

Berriro ere, egintza hauen aurrean lehenago aipatutakoa errepikatu behar dugu: onartezina da arau bikoiztasun hau bi erantzukizunen oinarria berdina delako, eta azken batean biak egitate berdin baten bi aldeak besterik ez direlako.

Azkenik, 121. artikulua edukia aipatu behar dugu, non administrazio publikoen erantzukizun zibila jasotzen baita beren funtzionari, autoritate edo kontratatuek beren lanean egindako galerengatik (beti ere, hauen jokabidea delitu bezala deklaratu bada)⁶⁰. Sententzia ugari daude Estatuaren erantzukizuna ezartzen dutenak⁶¹, baina, batzutan gaizki aplikatu izan da Kode Penalak (bereziki zaharra) eta zenbaitetan erantzukizun zuzen eta solidarioratza jo zuten⁶². Dena dela, azken aldiari badirudi gauzak bere onera itzuli direla (ikus AGS, 2. Sala, 1995eko martxoak 29koa).

2.1. Erantzukizun zibilaren edukia

Gure lanaren ariarekin jarraituz, eta erakundearen izaera eta berezitasunak aztertu ondoren, orain delitutik eratorritako erantzukizun zibilaren edukia buruz hitzegi behar dugu. Eginkizun horretarako Kode Penaleko artikuluetara joko dugu berriro ere, txanda honetan, 110-115 artikuluetan jasota azalduko zaigu gai zehatz hau: “erantzukizun zibilaren barne sartzen dira: 1. Itzultzea, 2. Kaltearen konponketa, 3. Kalte material eta moralen ordainsaria (110. art.)”. Ikus dezagun elementu bakoitza banan-bana.

54. Ikus bereziki Auzitegi Gorenaren 2. Salaren sententzia hauek: 1994/IV/21; 1994/X/29; 1995/II/28; 1995/IV/12; 1996/III/13 eta 1996/IV/7.

55. Kode Penal berriak zenbait ezberdintasun sartu ditu gai honen araudian, aipagarriena lehenagoko 21. artikuluko azken parrafoaren desematea izan da. Parrafo horretan enpresariaren erantzukizuna jasotzen zen beren lokaletan gertatutako lapurrengatik: horretarako bi baldintza galdatzen ziren, lapurtutako gauza lokal horretan gordea zegoela jakinarazi behar zitzaion aurrez tokiko arduradunari eta indarkeria erabiliz egindakoa izanez gero, lapurrak bertako langile izan behar zuen. Dena dela, haseran esan dugun bezala parrafo hau ez da egungo Koderak pasa eta ondorioz enpresariaren erantzukizunak nolabaiteko gutxitzea jasan du. (Praktikan xedapen honek arazo asko planteatu zituen eta sententzia ugari daude gai honi buruzkoak. Ikus, besterik beste, Auzitegi Gorenaren, 1. Salaren, sententzia 1994ko urtarrilak 27koa).

56. Kode Zibilaren 1903. V artikulua (artikulu hau Legea 1/1991, urtarrilak 7koak erreformatu zuen), berriz, eskolako zuzendari edo arduradunen ordezkio erantzukizuna aipatzen du, adin-txikiko ikasleek beren ardurapean dauden bitartean egindako kalteengatik.

57. Gogoratu gorago esandakoa.

58. Langileak sortutako kaltearen eta enpresariaren diligenziaren artean dagoen loturaren ondoriozko erantzukizuna zuzena da. Azken honen erantzukizuna *in vigilando* edo *in eligendo* errutik eratoritzen da (ikus YZQUIERDO TOLSADA, *La Responsabilidad civil*, aip. lan., 63. orria).

59. YZQUIERDO TOLSADAK (*La responsabilidad civil*, aip. lan., 63. orria) dionez “bezeroak enpresa zehatz batengana jotzen badu, enpresariak haren aurrean erantzun beharko du ez bakarrik harreman horietan dola, erru, zuhurtziagabetasun edo mora egon denean, baizik eta edozein erataria ere, (kasu honetan era hori laguntzaileen bitartez aritzea izango da) obligazioan aurrikusitakoa bete ez delako”.

60. Gai honetan aipagarria de SOTO NIETO, F. ren, lana: “La responsabilidad del Estado y entes públicos en general (art. 121 CP)”, *La Ley*, 1996, 3.964 zkia.

61. Besteak beste: 1994/V/6; 1995/IV/7; 1995/VII/10; 1996/IV/20.

62. Ikus Auzitegi Gorenaren, 2. Salaren sententziak: besteak beste, 1992/V/16; 1992/VII/17; 1992/XII/16; 1993/I/21 eta 1994/XII/15.

Lehenik eta behin, posible den kasu guztietan kaltetuari kendutako ondasun berdina itzuliko zaio, izan ditzakeen narriadurak ordainduko zaizkiolarik. Ondasun hori hirugarren pertsona baten esku egon arren benetako jabeari itzuliko zaio, nahiz eta jabe berriak legea erespetatuz eta fede onez eskuratu izan objektua (111. art.)⁶³. Kasu honetan, jakina, azken honek saltzailearen kontrako errepikapen eskubidea izango du eta, batzutan, delituaren erantzule zibilak indemnitzatu egin beharko du.

Bestalde, artikulua honetan erabiltzen den "itzultzea" kontzeptuaren esanahia behar bezala ausnartzen badugu ohartuko gara termino honekin ez dela soilik ondasunaren bueltatze materiala aipatzen, baizik eta, delitua gertatu aurretik gauzak zeuden hartara eraman nahi dira (eraikitako elementuak lurrera bota e.a.).

Bigarren osagaia, esan bezala, konponketa izango da. Berau kaltearen izaeraren arabera zehaztuko da eta egite, ez-egite edo emate obligazio bat izan daiteke. Kodeak dioenez, bestalde, errudunaren baldintza pertsonalak eta materialak kontutan izango dira obligazio hauek errudunak pertsonalki bete behar dituen ala beste batek haren kargu egin ditzakeen erabakitzeke (112 art.).

Bukatzeko, kalteordainari buruzko datu batzuk aipatuko ditugu. Indemnitzazio edo kalteordainak kaltetuari eragindako galera materialak eta moralak⁶⁴ ase beharko ditu, baina haren familia edo hirugarren pertsona bati sortarazitakoak ere (113. art.)⁶⁵. Mota honetako ordainketak egintza ez-zilegiaren ondorioak diru-kantitate egoki baten bitartez konpontzeko xedea dauka eta horregatik, bi eratako kalteak bereizten dira eremu honetan: ondarezkoak eta ondarezkoak ez direnak. Jakina, lehenengo kasuan, ondarearen gutxitze bat emango da, egon diren galerak eta lortu ez diren onurak kontutan hartzen direlarik (adibidez, gaisotasun gastuak eta lan-ekimena esekitzeagatik irabazi ez den diru-kopurua). Ondarezko izaera ez duten kalteak (moralak, beraz), aldiz, sufrimendu fisiko,

psikiko eta galera sozialak erantzutera zuzenduko dira, eta ez dute galera horren hainbatekoa den diru-kantitate bat suposatzen, sufritutakoa kitatzea dute helburutzat. Adibidez, kalte morala konpontzeko modu berezi bat gaitzezpen sententziaren publikazioa izango da.

Azkenik, kalte materialak zein moralak ordaingarriak izan daitezten derrigorrez delituaren eta hauen artean kausalitate erlazio batek existitu beharko du, erlazio zuzenik galdatzen ez bada ere (nahikoa izango da zeharkako kausalitate lotura bat egon dela frogatzea).

2.2. Erantzule aniztasuna

Delitu edo hutsegite baten erantzule zibilak bi edo gehiago direnean Auzitegiek bakoitzari kuota bat esleituko die eta honen arabera erantzun beharko dute (KPeko 116. art.)⁶⁶. Alabaina, egile eta konplize bakoitza erantzule zuzena da dagokion kuotarekiko, baina, gainera, hartzekodunaren aurrean **solidarioki erantzun** beharko du bere taldekideen kantitateaz, eta **subsidiarioki** gainontzeko kategoriei dagozkienengatik: alegia, ordaintzera behartuta dagoen baten batek ordainduko ez balu, haren orde z lehenik egileen ondasunek erantzuten dute eta gero konplizeenak⁶⁷.

Kode Penal berriaren artikulua honek orain arte, gai honen inguruan, sortutako eztabaida guztiei amaiera eman die espreski adierazi baitu egintza ez-zilegietatik sortutako obligazioek izaera solidarioa dutela. Lehen doktrina zatitua zegoen: batzuk solidaritatearen aldeko agertzen ziren eta beste batzuk mankomunitatearen alde. Kode Zibileko 1137. artikulua solidaritatearen presuntzio-ezaren printzipioa ezartzen du, baina, egintza ez-zilegi batetik sortutako obligazioei dagokionez ez du ezer esaten. Ondorioz, autore batzuren iritziz erantzukizun mota hau amankomuna litzateke. Doktrinaren gehiengoarentzat eta jurisprudentziarentzat berriz, solidaritatea ematen zen⁶⁸. Dena dela, esan bezala, gaur egun, 116. artikulua berriak eztabaida

63. Legeak berak 111. 2 artikuluan salbuespen bat arautzen du: ondasunak aldarrika ezinak bihurtu badira ez zaizkio jabeari itzuliko. Dakigunez, gauza bat aldarrika ezina izango da 1955 edo 1956. artikuluko baldintzak bete direnean: ondasun higigarriak hiru urtetan fede onez edukitzen direnean (edo sei urtetan beste ukanbeharririk gabe) preskripzioz edukitzailearen jabetzara pasatzen dira. Lapurtutako ondasunak preskripzioz eskuratzeko beharrezko izango da lehenik hobena zein delitua, edo haren zigorra eta erantzukizun zibila preskribaturik egotea. Gainera 464. artikulua galdutako ondasunen edo era ez-zilegian kendutakoen aldarrikagarritasuna aitortzen du. Ikus zehaztasun gehiagotarako MONTÉS PENADÉS, "Comentarios", aip. lan., 585-598. orriak eta bertan aipatzen den bibliografia.

64. Arazo honi buruz ikus GARCÍA LÓPEZ, R., *Responsabilidad civil por daño moral. Doctrina y jurisprudencia*, Barcelona, 1990. MONTÉS PENADÉS autoreak ("Comentarios", aip. lan., 601-608), Auzitegi Gorenaren 2. alaren jurisprudentzia jarraituz, bi eratako kalte morala ezberdintzen ditu: alde batetik, "kalte morala zeharka ekonomikoa" deiturikoa, zeinak gizakiaren jardutea gutxiarazten duen eta aberastasuna lortzeko gaitasunak ahultzten baititu eta bestetik, kalte morala *sensu stricto*, inolako eragin ekonomikorik ez duena: mina, larritasuna, kezka, malenkonioa... Biak hartzen dira kontutan ordainsariaren muntaia kalkulatzeko eta lan horretan epaileak askatasun osoz jokatzeko.

65. Gai honi buruzko azken sententzien artean, besteak beste: 1994/IX/26; 1994/X/4; 1995/III/24; 1996/III/18.

66. Adibidez, ikus Auzitegi Gorenaren, 2. Salaren sententzia hauek: 1994/V/7; 1995/IV/7 eta 1996/V/23.

67. Ikus MONTÉS PENADÉS, "Comentarios", aip. lan., 618-622 orriak.

68. Ikus GUILARTE ZAPATERO, V., "Comentarios a los artículos 1137 a 1140", *Comentarios al Código civil y Compilaciones forales*, ALBALADEJOK zuzen., XV, Madrid, 1983, 233.orria.

honi amaiera eman dio eta solidaritatea legez ezarri du.

Bestalde, gure lanarekin aurrera jarraituz, erantzukizuna solidario gisa definitzeak, baditu bere ondorioak ordena prozesalean, beharrezko litiskontsorzio pasiboaren salbuespena sortarazten baitu era honetako prozesuetan⁶⁹. Erantzuleen solidaritateari esker, auzijartzailea edozeinen aurka zuzen daiteke, ondoren, demandatua izan denak besteen kontrako akzioa izango duelarik (KZeko 1144. artikulua xedatzen du bere lehen pasartean, hartzekodunak bere eskaera edozein zordun solidarioren aurka edo guztien kontra zuzendu dezakeela)⁷⁰.

Auzitegi Gorenak bere erabakietan ideia hauek azaldu ditu: egintza kaltegarria subjektu anitzek sortua izan denean, beraien artean solidaritatezko harremana sortzen da eta erantzukizuna solidarioa denean Kode Zibileko 1144. artikulua aplikatu behar da, zeinak hartzekoduna ahalmentzen duen edozein zordun solidarioren aurka edo guztien aurka jotzeko. Azkenik, demandatua kondenatua izan arren, beti eska diezaieke gainontzeko partehartzaileei beraiei dagokien zatia (KZeko 1145.2. art.). Ez dago, beraz, beharrezko litiskontsorzio pasiboa justifikatzen duen arrazoirik⁷¹.

Kritikoez ez dituzte argudio hauek onartzen⁷², "Kode Zibilaren 1144. artikulua bakarrik ezarri daiteke, zordun alderdian subjektu anitz dituzten obligazioen kasuan, interpretazio judiziala egin aurretik ere existitzen direnean, eta zorduna edo zordunak obligazio horiek betearaztera zuzendutako uzien kasutan"⁷³. Nabardura hori oso garrantzitsua da, zeren obligazioa ez bada "existitzen" dudarik gabe, eta lortu nahi dena bere esistentziaren deklarazioa bada, deklarazio horrek ukitzen dituen guztiak demandatu beharko baitira (ukitutako guztien litiskontsorzio pasiboa behar da).

Ondorioz, egile horiek erizten dute Kode Zibileko 1144. art. ezin dela aplikatu kontratuz kanpoko erruari buruzko prozesuetan.

Ildo beretik, bigarren argudioa ere kritikatu izan da, eskuhartzaileen solidaritatea prozesu judiziala hasten den momentu berberetik ematen dela uste baitu; benetan, solidaritate hori prozesuaren amaieran zehazten denean, froga guztiak praktikatu ondoren, eta subjektu bakoitzaren erantzukizunak indibidualizatu ezin izan direnean.

Hori dela eta, demanda aurkatzeko unean, partehartzaileen arteko solidaritatea ez da existitzen oraindik, eta auzijartzaileak ez du ahalmenik erantzule bakar baten aurka zuzentzeko, beraz denak demandatu beharko ditu.

Ikusten dugunez, jarrera doktrinalak kontrajarriak dira. Alderdi bat Auzitegi Gorenaren interpretazioaren aldekoa da, besteak berriz arbuia egiten du. Gure iritziz, demandatua izan ez den alderdiaren (eta erantzule solidario deklaratu izan denaren) indefentsioa gerta ez dadin, nahikoa da alderdi honi sententzia egikaritu aurretik une prozesal bat eskeintzea non erantzule solidario ez-prozesatuak bere alegazioak aurkezteko aukera izan baitu⁷⁴.

3. Erantzule zibilaren ordain ezintasuna: kaudimengabeziaren arazoa

Baliteke erantzule zibilak ez izatea ondasunik bere erantzukizunaz erantzuteko eta kaudimengabeko deklaratzeari, edota gerta daiteke zenbait ondasun izatea, baina horiek ez izatea nahiko eragindako kalte osoaz erantzuteko (kaudimengabezi partzialaren kasua da). Azkenik, kasu gutxi batzutan, erantzule zibil zuzena erabat kaudimendun da eta ordaintzera behartuta dagoen prozesu-kostuak osotasunean ordain ditzake.

Lehenengo adierazi ditugun bi hipotesi horietan, alegia, behin-betiko kaudimengabezia edo kaudimengabezia partzialaren kasuetan azaltzen da hirugarren erantzule zibila, edo Kode

69. Bi artikuluren irakurketa gomendatzen dugu: MUÑOZ JIMENEZ, F.J., "Consideraciones en torno al litisconsorcio necesario y los vínculos de solidaridad pasiva", *RGD*, 1991, 5745. Orria, eta COBO PLANA, J.J., "La solidaridad de los intervinientes en el hecho ilícito como fundamento de la exclusión del litisconsorcio pasivo necesario en el proceso de responsabilidad por culpa extracontractual", *Actualidad y derecho*, 13.zkia, 1994, 1. orria.

70. Auzitegi Gorenaren, 1. Salaren sententziak 1988/II/19, 1989/II/20, 1992/IV/21, 1992/X/10, 1993/II/1, 1994/I/26 eta 1994/II/8.

71. Apunte azkar moduan, beharrezko litiskontsorzio pasiboari buruzko bi hitz esango ditugu. Erakunde hau alderdi kide guztiek prozesuan entzunak izateko duten eskubidean oinarritzen da (bestela indefentsioa emango litzateke) eta erlazio juridiko batzutan ematen den derrigorrezko tratu berdintasunean: kasu hauetan ez da onartzen egitate berdin batek erantzun judizial ezberdinak edo kontraktatuak izatea. Sakonago, MUÑOZ JIMENEZ, F.J., "Consideraciones en torno al litisconsorcio necesario y los vínculos de solidaridad pasiva", *RGD*, 1991, 5752 orria.

72. Doktrinak Auzitegi Gorenaren jurisprudenziaren aurka egindako kritika ezberdinak COBO PLANAREN "La solidaridad de los intervinientes..." aip. lanean jasotzen dira, 6. orrian eta DIEZ-PICAZO, L., *Fundamentos de Derecho civil patrimonial*, II, Madrid, 198, 229 eta ond. orriak.

73. COBO PLANA, J.J., "La solidaridad de los intervinientes en el hecho ilícito como fundamento de la exclusión del litisconsorcio pasivo necesario en el proceso de responsabilidad por culpa extracontractual", *Actualidad y Derecho*, 8.orria.

74. Doktrinak zalantzan jarri du sententziaren "epaitutako gauza" moduko eraginkortasuna zordun/solidaritate loturen bitartez elkartutako pertsonen artean. Egia esan eraginkortasun hau ez da posible mota honetako prozesuetan. Ikus DIEZ-PICAZO, L., *Fundamentos del Derecho civil patrimonial*, II, 4. arg., Madrid, 1993, 229. orria.

Penaleko 116 eta 120 artikulua aztertzerakoan ikusitako ordezeko erantzule zibilaren figura; lege penalaren asmoa, malderra edo kaltetu zibila gordetzea, babestea, laguntzea eta sorostea baita⁷⁵.

Ordezko erantzule zibilari prozesu penalera deitzen zaio kaltetu zibila babestearren, erantzule zuzenak duen ondasuna nahikoa ez denean hark kalte zibilaz erantzun beharko du eta gerora, ordezeko erantzule zibilak, errepikapen-eskubidearen bitartez, erantzule zibil zuzenaren aurka helegin dezake bide zibilean jasan duen kalte ekonomikoaren ordaina galdatzeko (KPeKo 116. art.), beti ere, erantzule honen egoera hobetu bada eta ordaindu beharrekoari aurre egiteko gauza denean.

Alabaina, bereizi behar dira argi eta garbi kasu bat eta bestea: ordezeko erantzuleak erantzunkizun zibilaren kopuruaz erantzuten du soilik, hau da, dagokion itzulketaz, medeapenaz eta kalte-ordainaz, baina ez beste ezertaz; ondorioz, ez du erantzuten penatuak ordaindu behar lituzkeen prozesu-kostaz.

Ezberdintasun berbera aurki genezake prozesu penalean sortzen diren kautelazko edo bermazko neurriei dagokienez, zeren prozesuaren ondorio ekonomikoaren ordainketa bermatzeko bada ez badako neurri gisa pieza prozesal bananduak (erantzukizun zibilari buruzko piezak) izapidatzen direnean, horiek bi motakoak izan daitezke: erantzukizun zibileko pieza bakarria non deituak prozesutik sor daitezkeen ondorio ekonomiko guztiak bermatzen baitituen; eta ordezeko erantzukizun zibilari buruzko pieza, zeina lehenengo pieza aurrera ateratzen ez denean bakarrik irekiko baita, eta kaltetu zibilaren eskubideak babestearren egingo da.

Fiskalei zuzendutako Instrukzioak 1/1992, urtarrilak 15ekoak, gogorarazten die kaltetuari egindako galeraren medeapena bermatzea guztiz garrantzitsua dela, eta konponketa hau zehapen penalarekin ez dela amaitzen. Berebat, xedapen honek adierazten du Fiskalek duten eginkizuna erantzukizun zibileko piezen izapidatzea sustatzen eta zaintzen, eta lan hau hobeto betetzeko, errudunaren ondasuna sakonki ikertzea gomendatzen die, polizia judizialaren eta Udalen eta Ogasun Ordezkaritzen txostenen laguntzaz. Gainera, exekuzioan dagoen prozesu baten behin-behineko artxibaketa agindu ez dezatela eskatzen die, delitutik eratorritako kalte-ordainen ordainketa frogatzen ez den bitartean, edo errudunaren benetazko kaudimengabezi-



7. irudia

egoera (azken kasu honetan, behin-behineko artxibaketa bakarrik eskatu ahal izango dutelarik, kalte-ordain zibilen galdakizunerako epea preskribatu ez den bitartean).

Kaudimengabezia partzialaren kasuan, Kode Penalak 126. artikuluan ordainketa orden bat xedatzen du⁷⁶:

“Errudunaren ondasunak ez balira nahikoak diruzko erantzukizun guztiei aurre egiteko, ondorengo orden honetan ordainduko dira:

- 1.- Sortutako kaltearen medeapena eta galeren indemnizazioa.
- 2.- Estatuari auzian bere kontura egindako gastuengatiko kalte-ordaina.
- 3.- Akusatzaile partikularren gastuak, sententzian horrela ezarri denean.
- 4.- Gainontzeko prozesu-kostak, baita prozesuaren defentsarenak ere, lehentasun ordenik gabe.
- 5.- Isuna.

2. Delitua izan balitz alderdi baten eskariz bakarrik pertsegitu litezkeen horietakoa,

75. HERNANDEZ HENRIQUEZ, E.E., “La Responsabilidad civil en el proceso penal”, *Rev. Der. Proc. Iberoam.*, 1979, 497.orria.

76. Ikus sakonago: MONTÉS PENADÉS, “Comentarios”, aip. lan., 652-655 orriak.

akusatzaile pribatuaren gastuak Estatuaren indemnizazioaren aurretik ordainduko dira”.

Hau da, lehenik erantzukizun zibila betetzen da eta ondoren gainontzeko prozesu-kostak. Ordezko erantzukizun zibilaren kasuan, honek soilik ordaindu beharko du medeapenaren *quantum*-a osatzeko falta dena.

4. Erantzukizun zibilaren exekuzioa

Erantzukizun zibilaren exekuzioa aurrera eramateko bete behar den lehen suposamendu prozesala sententzia penala kondenatzailea eta irmoa izatea izango da; jakina, bigarren suposamendua, epaiak erantzukizun zibila ordaintzeko kondena deklaratzeko izango da, eta azkenik, beharrezkoa da erantzule zibil bat ere izatea, alegia, kalteez erantzuz duen pertsona, erruduna bera edo ordezkoko erantzule zibila izan daitekeelarik.

Erruduna eta erantzule zibil nagusia kaudimenduna bada, Epaiketa Kriminalari buruzko Legeak, 239. eta ondorengo artikuluetan xedetzen duenaren arabera, zigorraren exekuzioa ***kosta-tasazioko izapidean*** burutuko da. Erruduna kaudimendun partziala balitz eta ez balego ordezkoko erantzule zibilik, honek dituen ondasunekin erantzun beharko luke partzialki bada ere; aldiz, ordezkoko erantzule zibil bat balego, honek gerakina ordaindu beharko luke, honela erantzukizun zibila osotasunean exekutatu. Azken hipotesi bezala aipatuko dugu errudun guztiak kaudimengabeak izanda ere⁷⁷ ordezkoko erantzule zibil bat dagoeneko kasua. Hemen, ordezkoko erantzule zibilak kalte osoaz erantzun beharko du, ondasun nahiko izango balu behintzat, edo kaudimendun partziala izango balitz, soilik ordaintzeko gauza den neurrian. Erantzule zibil subsidiarioa ere kaudimengabea izanez gero edo besterik gabe, pertsona honek existitzen ez bada ere, erantzukizun zibila bertan behera geldituko litzateke, eta, ondorioz, kaltetuaren asmoa ez da beteko, berriro ere kalte larri bat sufritu araziz⁷⁸.

77. Errudun guztiak beren kuotez amankomunean erantzuten dutela gogoratu.

78. Planteatzen diren arazoak sakonago aztertu nahi izanez gero, ikus HERNANDEZ HENRIQUEZ, “La Responsabilidad civil...”, aip. lan., 497 eta ond. orriak.